

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2013ko urriaren 24a
343. zenbakia. 25. urtea



Aian hazitako kantautorea

Mikel Markez bakarlarari Aiarrak disko berria kaleratu du. 20 urte luzetan musikak eman diona eta haren inguruan egin duen ibilbidea azaldu dizkigu.

05

Herriko kontuak
Musika Eskola

09

Kirol elkarrizketa
Mikel Narciso

11

Aia
Kintopeko idi-demak

22

Kritika
Uhats taldearen diskoa

FASHION WEEK

Orio WEEK

azaroak 9-16
Laguntzaileak

Desfilea
Azaroak 9 larunbata
Arraunetxan 18:00etan.

ARRAUNETXAN ETA PRAGUENKO TENNIKAZO ZENTROA

Sarrera 1€, salmenta Arkupeko dendetan.

Parte-hartzaileak

izarra, Orio, ANARRI, ODITZ, BEREZI, KAIOA, Lua, Nekikeri, ITZIAR, MAUKA, ERROSA ARRIETI, GURDOKUITALA, FURDO GALTZARRETA, GIPUZKOAN, GIPUZKOAN, GIPUZKOAN

"10 HILABETE INTERESIK GABE"

TIEN 21

BRAUN

48,90€

TOSHIBA 8GB

6,50€

TIEN 21

BOSCH 2400W

49,95€

FAGOR 2000W

59,90€

SAMSUNG 43"

435€

ORBEGOZO 20L

54€

BALAY 6Kg - 1000RPM

259€

ACER 750HDD

399€

BITROZERAMIKA ASPES

199,95€

Eusko Gudari 44 - Tf: 943-83.38.81 - **IZARRA BIDEOAK** - 20810 - ORIO - GIPUZKOA

"HARRAPATU ITZAZU BIGARRENGO PREZIOAK"

Urriko herriko orria, gorriz -eta irriz-

1

Jaiez beteta dugu Euskadin urria, baina festa-gogoa gehienok urria, askok itxia baitu diru-iturria, langabezia handia giro bihurria, lan, jai eta dirutan behar da neurria.

2

Urrian hamabian Espainia eguna: *la legión, la raza* trikornioduna, hoitabostean, berriz, Estatutu urruna, Lópezek ospatzeko ezarri ziguna, ez bata ez bestea behar ez duguna.

3

Arrotz dira bi jaiak gureak ez, egun, beraz dagokionak ondo beza entzun: hildakoen egunean lurpera ditzagun. Orioko gazte-jaien txanda-pasa lagun, Goiko Kaleko festei eutsi diezaiegun!

343

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegia,
Onintza Aiestaran, Iñigo
Gaiton, Iker Gurrutxaga, Eli
Lasa eta Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iban egiguren

Publizitatearen diseinua

Iban egiguren

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola eta
Rikardo Uzquidun

Ale honetako laguntzaileak

Eli Huegun, Antton Iturain,
Lukene Lizaso,
eta J.F. Lukas.

Laguntzaileak

Xabier Sukia
eta Iñaki Iturain

Diseinua

Karkara taldea

Banatzaileak

Narrea Etxeberría
eta Esti Uranga (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berrieman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko:
Iban Egiguren -688 859 682-
edo karkara@karkara.com
Prezio hauetara BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Salatxok 20 urte

Salatxo abesbatzak 20 urte beteko ditu azaroan. 20 urtean makina bat kantu abestu ditugu eta herritar asko pasatu da abesbatzatik.

20. urteurrena gurekin batera ospatzeko deia egiteaz gain, eskari bat ere egin nahi genizueke urte hauetan gutzietan Salatxo abesbatzan parte hartu duzuenoi: Salatxo abesbatzarekin aterako argazkiak, egindako soinu eta bideo grabaketak, zein 20 urte hauen adierazgarri izan daitezkeen bestelako materialak gure eskutan jartzea –gero bueltan jasoko dituzue–.

Horretarako hainbat bide izango dituzue: batetik, abesbatzako norbaiti ematea; bestetik, abesbatzak Kosta-tailerrean duen postontzian uztea –izen-abi-zen, helbide eta telefonoarekin, gero bueltatzeko–; eta hirugarrenik e-postaz bidaltzea salatxoabesbatza@gmail.com helbidera.

Materiala azaroaren 4a baino lehen jaso nahi genuke, ondoren, prestatu beharrekoa egiteko nahikoa denbora izan dezagun. Eskerririk asko, bada, Salatxo abesbatzako kantari ohiei, baita materiala izan dezakeen beste edozein herritarri ere, horiek ere gustura jasoko ditugu-eta. ■ **Salatxo abesbatza**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAra bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Okerrak zuzentzen

Aurreko KARKARAN, 342 zenbakian, egindako bi akats zuzentzeko da honako ohar hau. Batetik, *Adarretatik helduta* ataleko artikulua nork idatzia zen ez genuen jarri eta Mainer Arrillaga podologo oriotarrarena dela jakinarazi nahi dugu, baita berari barkamena eskatu ere. Bestalde, agendan, bingoko saioen egunak ere oker jarri genituen: aste osoan zehar izango zirela esan genuen bingoko saioak asteazkenetan, 16:30etik 18:30era, Kultur Etxeko areto nagusian izango direla esan beharrean. Barkatu okerrak.

Armenai Gain 1 - 5. lekuko - 20.000 litro
Tel. 943 84 82 13

kix kax
estetika
fotopieluzko
osatu lanbetea

ileapaindegia

kutixi
kafetegia
GOSARI GONDOAK

Arriaga 9, 20810 Orio
Tel. 943 13 13 17

LOBETXU JATETXEK

Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

LURDES
HARRIARDEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

943 572 870

KOASTA
Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aparta...

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ESTILOKATU - LEUNBATUEN 7:00 - 9:30 HONDE (IN JE SUKATU) 7:00 - 13:30
Tel. 943 83 07 84

ileapaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

azkue

Tf: 943 13 04 38

KOLON TXIKI
sukardegia
jateketa

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tel. 943 83 07 84 Fax: 943 24 87 26

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

Tel. 943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

Danbolineko ikasle aiarrek matrikula osoa ordainduko dute 2014tik aurrera

Orioko eta Aiako Udalek izan dituzten elkarrizketen ondoren, Orioko Udalak Ordenantza Fiskala aldatu eta aiarrak gainerako kanpoko ikasleak bezala hartuko ditu hemendik aurrera

Danbolin Musika Eskolan dabilzan Aiako eta Orioko ikasleek urtero-urtero diru kopuru bat jasotzen dute Orioko Udaletik. Kantitate hori matrikulazioan ematen diete eta oriotarrak edo aiarrak izateagatik %40 inguruko deskontua jasotzen dute. Hori da ikasle bakoitzagatik Orioko Udalak ematen duena.

Egoera horri buelta eman nahian, Orioko Udala 2013ko lehen hiruhilabetean Aiakoarekin jarri zen harremanetan. Hartu eman horren helburua ikasle aiarrek jasotzen duten diru-laguntza hori nork ordaindu behar zuen erabakitzea zen.

Igor Iturain Aiako alkatearen hitzetan, *Danbolin Musika Eskolan dabilzan Aiako ikasleek, lauk izan ezik, beren eguneroko bizitza Orion egiten dute: ikasketak, erosketak... guztia. Beste lau horiek dira benetan Aiako kaskoarekin lotura dutenak.*

Horren aurrean, momentuz Orioko musika eskolan dabilzan aiarragatik ez

dugu ordainduko. Izan ere zerbitzu hori bera Aian badaukagu, nahiz eta xumeagoa izan, gaineratu du Aiako alkateak.

Horren aurrean, Orioko Udalaren izenean Beñat Solaberrietak negoziatzeko prest zela adierazi zion Ituraini; bazela erdibide bat bilatzeko aukeraren bat. Aiako alkatearen erantzunaren aurrean, Solaberrietak adierazi du *Orioko Udalak argi daukala ez dagokigula oriotarrei*

ZENBAKIA

26

Ikasle. Danbolin musika eskolan dabilzan aiarren kopurua da hori. Iaz baino bost ikasle gehiago dira eta horiengatik iazko ikasturtean baino 2.000 euro gehiago jarri behariko ditu Orioko Udalak aurten. Datorren ikasturtean, 2014-2015ean, momentuz, ez da diru-laguntzarik izango, ordea, aiarraentzat.

hori ordaintzea. Ez da ez dugula ordaindu nahi edo ezin dugula ordaindu, baizik eta ez dagokigula ordaintzea. Horren aurrean Aiako Udaletik aldaketarik ez balego, Orioko Ordenantza Fiskaletan ikasleak bitan banatuko ditugu: oriotarrak alde batetik eta gainerako herrietakoak bestetik. Gainera, Ogasun Batzordearen oniritzia izan du gai horrek dagoeneko esan du Solaberrietak.

Iaz Aiako 21 ikasle ziren eta 9.000 euroko diru-laguntza eman zuen Orioko Udalak. Aurten, berriz, 26 ikasle dira eta 11.000 euro jarri behariko ditu Orioko Udalak. Datorren urterako, Aiarren proposamenei irekita daude oriotarrak.

Musika eskola ez, kiroldegia bai

Dena dela, Aiako Udalak, momentuz, Danbolin musika eskolan dirurik jartzeko asmorik ez badu ere, Karela kiroldegian egiten duen ekarpenari eutsi egingo dio. Izan ere, Aiak ez du zerbitzu hori eskaintzen eta aiarrei dagokien defizitaren portzentajea Aiako Udalak ordaintzen du. Gauzak horrela, aiarrak eta oriotarrak zaku berean sartuko dituzte aurrerantzean ere, kiroldegiari dagokionez, ordenantza fiskaletan.



Orioko Udalaren ustez beraiei ez dagokie ikasle aiarren matrikulazioari diru-laguntza ematea. KARKARA

Mandalara astea antolatu dute urriaren 24tik 27ra bitartean

Hitzaldiak eta tailerrak izango dira, besteak beste. Mandalara taldeak Antxiola kalean duen lokalean izango dira ekintza batzuk, Kosta Tailerrean beste batzuk eta Orioko Herri Ikastolako aretoan



Ekintza asko izango da asteburuan. MANDALARA

Zortzi urte daramatza dagoeneko Orioko Mandalara taldeak martxan. Beren egunerokoan pertsonaren *barne bakea* bilatzeko saiakera egiten dute. Horren harira, hainbat teknika jarriko dituzte praktikan urriaren 24tik 27ra arte antolatu duten Mandalara astean.

Hala, herritarren eskaeren arabera eskaintzak egiten dituzte Mandalara taldekoek. Bilerak egin eta bertan sortzen diren proposamenen arabera antolatu dituzte hitzaldi eta ikastaroak. Esaterako, iaz, egin zituzten 40 ekintzetan 800 lagunek hartu zuten parte.

EGITARAUA

Urriak 24, osteguna

20:00etan: *Bihotzetik musika* kontzertua. Mandalaren lokalean.

Urriak 25, ostirala

10:00etan: Yoga klasea Kosta Tailerrean
12:00etan: *Brain gym*, garun-gimnasia saioa Kosta Tailerrean.

16:00etan: sendabelarren inguruko hitzaldia, Mandalaren lokalean.

18:00etan: *Eneagrama: ezagutu zure izaera* saioa, Mandalaren lokalean.

Urriak 26, larunbata

10:00etan: *Ho'oponoponoari* buruzko *El perdon* hitzaldia, Mandalaren lokalean.

12:00etan: *Zuzendu ezazu zure burua, zure bizitza zuzentzeko* hitzaldia Mandalaren lokalean.

16:00etan: Barreterapia tailerra, Orioko Herri Ikastolako aretoan.

18:00etan: Txumari Alfaro naturopata ezagunaren *Alergiak eta desamodioak* hitzaldia, Orioko Herri Ikastolako aretoan.

Urriak 27, igandea

12:00etan: *Doula, amatasun bidean lagun* hitzaldia, Mandalaren lokalean.

16:00etan: *Biodantza* saioa, Kosta Tailerrean.

18:00etan: *Barne bidaia, hurrengo geltokia: Clowns geltokia* saioa, Kosta Tailerrean.

OHARRA: Edozein zalantzaren aurrean 648 487 489 telefono zenbakian informatu daitezke herritarrak.

LABUR

Euskara

Euskaraz Gazte

Datorren urriaren 31 arte dago zabalik Euskaraz Gazte literatur lehiaketan parte hartzeko epea. Bi mailatan izango da lehiaketa; narrazioak alde batetik eta poesia edo bertsoak bestaldetik. Kategoria bakoitzean bosna sari izango dira: 300 euro lehenengoari, 200 euro bigarrenari, 150 euro hirugarrenari eta 100 euroko bi akzesit. Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu beharko dira. Oinarriak ikusteko www.oriola.com orrialdean sartu eta Euskara Zerbitzuaren atalera jo behar da.

Arexolaeibaren hitzaldia

Euskaraz bizi-bizi programaren barruan antolatu du Orioko Udalak datorren azaroaren 7rako, ostegunerako, Julen Arexolaeibaren hitzaldia. Kike Amonarriren saioa bezala, Salatxo aretoan egingo da, 19:00etan hasita. Hitzaldia XXI. mendeko euskalgintzari buruz izango da: paradigma aldaketa euskara biziberritzearen aldeko lanean; marko teoriko berriak. Horrez gainera, urriaren 24an, ostegunarekin, Orioko Udalak eta Gara-bide elkarteak antolatuta, hizkuntza minorizatuei buruzko mahai-ingurua izango da Salatxo aretoan, 19:00etan hasita.

Kultura

Jon Sarasuaren liburua

Irailaren 28an aurkeztu zuen *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz* apunteak liburua Jon Sarasua bertsolariak. Pamiela argitaletxearekin kaleratu du bere azken lana aretxabaletarrak eta 23 euroren trukean erosi daiteke sarean. Argitaletxearen hitzetan, liburuan esaten direnak *euskararen norabideaz pentsatzeko angelu batzuk hartuta, zatika egindako begiratuak dira, adar anitzetan barreiatuak*. Biderako apunteen forma dute gehienek, zer egin? *dioen galderaren bueltan. Hiztun komunitatearen zuntzetan nahi dituzte testuok begiak jarri, bideak iradoki eta galderak pausatu.*

IkaStudy Ikasketak

- Ingelesa
 - Ingeles tituloak
 - Ingelesa unibertsitateko gurtiak
 - Ingelesa helduentzat-maila gurtiak
 - One to One with native
- Informatika
 - Klase Partikularrak
 - LH - DBH - Batxilergoa - Zikloak

Alta Lertxundi 31 - 20810 - 9100 - 48962004
Telefonoa: 638 338 370 / ikastudy@gmail.com

AMAIA ESTANKOAK

Tabakoak
Prensa

Alta Lertxundi 31 - 20810 - 9100 - 48962004
Telefonoa: 638 338 370 - Fax: 943 93 42 12

MASAJISTA

ANDATZA 22, A BEHE-SOLAIRUA, AIA

- ETXEKO ZERBITZUA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- MASAJE ERLAXAGARRIA
- KIROL MASAJEA

IF.: 676 198 904



Rosana Arruti *Fashion week*eko kartelaren egilea eta Ainhoa Fernandez Arkupe elkarteko presidentea. KARKARA

Arkupeko dendarien arropa eta osagarriekin osatutako desfilea

Elkarteko hamahiru dendetako jantziak plazaratuko dituzte datorren hilaren 9an. Herritarrei zerbait berria eta berezia eskaintzeko desioarekin sortu zitzaizen *Fashion week*aren ideia

Ez da ohikoa Orio bezalako herri txiki batean moda desfileak ikustea. Baina datorren hilabetean bi izango ditugu gure herrian.

Lehendabizikoa Arkuperen eskutik etorriko da. Azaroaren 9an, larunbatarekin, arratsaldeko 18:00etan hasita bi orduko moda festa antolatuko dute Arraunetxan. Elkarteko hamahiru dendetako arropak eta osagarriak izango dira pasarelan.

Ainhoa Fernandez Arkupeko presidentea esan digunez, kasualitatea izan da hilaren 22an kilometroetako aurkezpen jaialdia izatea, *han ere desfilea izango baita, baina aspalditik zerbait egiteko gogoz geunden; herria esnaraziko duen zerbait. Ideia hau sortu zen eta aurrera egin genuen. Itxura oso polita hartu du gure desfileak*. Fernandezek arabera, *nahikoa hilabete lerdoa izaten da azaroa. Larunbat arratsaldea aukera ona iruditu zaigu, izan ere herrian ez baitago guk nahi bezain beste mugimendu*.

Desfilea Arraunetxan

Bi aukera zituzten moda desfilea non egin erabakitzeko garaian: kiroldegian edo Arraunetxan. Arrazoi ekonomikoek Arraunetxera eraman dute festa. *Ez dago urrun, aparkaleku nahikoa badago eta aldatzeko-eta primerako tokia da guretzat. Gainera, argiztatzen dugunean eta atzean herria ikusten dela, dotore gertatuko da gaineratu du Fernandezek*.

Guztira hamahiru dendetako arropak eta osagarriak izango dira ikusgai pasarelan. Fernandezek kontatu digunez, *denda batzuk ezin dute desfilatzeo produkturik aurkeztu. Baina horiek ere festan presente izango dira. Denda baten eta bestearen desfilearen tartean, 50 euroko bonoak zozketatuko ditugu*. Guztira 1.500 inguru euro banatuko dituzte sari-tan Arkupeko dendariak.

Desfilea baino zerbait gehiago egin nahi izan dute Arkupekoek. Hori dela eta, *denda bakoitzak desfilatzeo bere musika aukeratuko du, eta batzuk zuzene*

neko emanaldi txikia ere eskainiko dute. Bakarriketak eta bestelako sorpresak ere izango dira.

Sarrerak dendetan

Segurtasun kontuak tarteko, 350 sarrera baino ezin izango dituzte jarri salgai Arkupeko dendariak. Sarrera bakoitza euro baten truke salduko dute eta zenbakituta izango dira. Hala, sarrera bakoitzarekin zozketetarako zenbaki bana emango zaie ikusleei.

Astebetetzuzatuko da merkatari elkarteak antolatuko duen ekintza. *Desfilearekin hasi, eta, gero, astean zehar, eskaintzak izango dira dendetan. Desfilean parte hartu dugun hamahiru dendek egingo ditugu eskaintzak. Gainerakoek, esan bezala, 50 euroko bonoak jarri dituzte zozketak egiteko* esan digu Fernandezek.

Kartelean eta dendetako erakusleihoetan erabiliko duten logoa Rosana Arrutik egin du. Fernandezek arabera, *Udalak ere begi onez hartu du Fashion week ekimena. Pasarela haiek jarriko digute eta guk argiztapenerako foku batzuk erosi ditugu. Inbertsio txikia eginaz, ekitaldi ahalik eta politena egitea izan da gure nahia* bukatu du Fernandezek.



Egunero-egunero jende askok jokatzen du padelean Karelako pistetan. KARKARA

46 bikotek eman dute izena Orioko lehen padel rankingean

Bi multzotan banatuta jokatuko da txapelketa. Multzo batean gizonezkoak eta bikote mistoak izango dira eta bestean arituko dira emakumezkoak. Urrian hasi eta ekainera arte luzatuko da txapelketa

Geroz eta jende gehiagok egiten duen kirola da padela. Jokatzen jakin gabe lehendabiziko egunetik erraz ikasi daitekeen kirola baita. Lagunartean aritzeko primerakoa. Orain, ordea, pauso bat harago eraman du Guillermo De La Calle padel monitorea. Izan ere, Orioko lehendabiziko padel rankinga antolatu du Karella kiroldegiaren laguntzarekin.

Hala, bakoitzak bere mailako bikoteen aurka liga moduko bat jokatzeak aukera izango dute izena eman duten 46 bikotek. Urriaren 10ean eman zitzaion hasiera txapelketari eta ekainera arte luzatuko da. *Batzuk oso serio jokatuko dute, eta beste batzuk jende berria ezagutzeko eta une atseginak pasatzeko aukera izango dute*, kontatu du De La Callek.

Bukaeran, rankingeko lehen 8 bikote-

ek elkarren kontra *play-off* moduko bat jokatuko dute 2013-2014 denboraldiko irabazleak zein izango diren zehazteko. Gainera, emakumeen multzotik gizonezkoenera salto egingo dute batzuk eta alderantziz, sailkapenaren arabera.

Lehen partidak

Lehendabiziko partida gizonezkoen multzoan jokatu zuten. Erkiziak eta Ibarbiak Rubioren eta Erkiziaren kontra. Lehendabiziko bikoteak rankingeko 3. postua defendatu eta partida irabazi egin zuten: 6-3 eta 6-1.

Emakumezkoen lehenengoan, berriz, San Sebastian eta Martikorenak gora egin dute, Urangari eta Illarramendiri 4-6 eta 2-6 irabazi eta gero. Saltsa behintzat izango da padel jokalarien artean.

LABUR

Bodyboarda

Mikel Atxegak brontzea Ferrolen

Bi bodyboardalari oriotar izan ziren urriaren 12ko asteburuan Ferrolen jokatuz Espainiako bodyboard txapelketa. Doniños hondartzako uretan izan zen proba eta Unai Zubizarretak 16 urtez azpikoetan hartu zuen parte. Laugarren izatearekin konformatu behar izan zuen. Mikel Atxega, berriz, 14 urtez azpikoetan hirugarren izan zen eta brontzezko domina eskuratu zuen modu horretan. Kanariarren atzetik euskaldunak izan ziren txapelketako indartsuenak.

Futbola

Zazpitik lau garaipen

Norgehiagoka erdiak baino gehiago irabazi ditu azken jardunaldian Orioko Futbol Taldeak. Gizonezko seniorren goren-go mailan 0-1 galdu zuten Zumaiako taldearen aurka. Ohorezko mailako jubenil mutilek ere berdinketarekin, 0-0, konformatu behar izan zuten Usurbilen. Kadeteek, infantilek eta alebinek mutiletan etxean jokatu zituzten partidak. Nesketan Lazkaon irabazi egin zuten kadete-jubenil neskek, 1-2. Infantilek, berriz, Urnietan 8-1 galdu egin zuten.

Saskibaloia

Hasi dira lanean gazteenak

Talde guztiak martxan jarri dira dagoneko eta ongi hasi dute beren bidea. Ursa-Orioko juniorrek hirutik hiru irabazita sailkapeneko lehenak dira. Orioko Ikastolako kadete eta infantil neskek ere garaipenarekin hasi dute denboraldia. Alustiza Autobusak taldeko senior mutilak, berriz, hiru irabazi eta bat galduta dela, 4. daude sailkapenean.

“Alde ederra dago harmailetan jendea animatzen egon edo ez egon”

Mikel Narciso

Areto futbol taldeko ordezkaria

Areto futbola ez da kirol entzutetsua. Orion talde bat izan bazen ere desagertu egin zen. Orain, ordea, klub berri bat sortu eta Gipuzkoako txapelketan mailarik baxuenean daude. Pixkanaka ikasteko eta gozatzeko gogoz ari dira jokalariaik.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Bere garaian, Orion eta Zarautzen areto futboleko ibilitakoak batzuk, besteak futboleko jokatuak. Utzi egin zuten eta koadrilako lagunak izanik, ezer egin gabe egon beharrean areto futbol taldea sortzea erabaki dute. Koadrilan, algara-artean hasi zen kontua lehiara pasatu dela dio Mikel Narciso taldekideak.

Hasi berriak zarete. Nola ikusi dituzue zuen aurkariak?

Jokatu ditugun partidetan ikusi dugu talde batzuk hobekien direla, noski. Lau partida izan dira: lehenengoan 2 eta 0 galtzen joan ondoren berdinketa lortu genuen azken minutuan; gero, Arrasateko partidara, jende gutxi joan ginen, batzuen lana eta besteen lesioak zirela-eta, eta galdu egin genuen; Zarautzen kon-

tra, berriz, berez irabazi genezakeen partida 3 eta 4 galdu genuen. Azkena ere galdu egin genuen Donostian eta ea asteburuan etxean –larunbatean 16:00etan– zorte hobea dugun.

Taldean orain arte areto futboleko ibili gabeak egonik gure helburua pixkanaka ikastea da. Entrenatzaileak ez dauka gure artean hasi ginen, aurretik areto futboleko ibilitakoak gidatuta. Orain aurrez jokalaririk ohi bat ari da guri sekulako laguntza ematen. Laguntzaileekin hainbat jokaldi lantzen ari gara, izan ere, areto futboleko, lau jokalaririk atezainarekin batek bere kasa jokatu gero taldea babesik gabe gelditu daiteke.

Zuen maila nolako da?

Pixkanaka hobetzen ari gara. Aurre denboraldian lagun arteko partida bat jokatu eta itxura eskasa eman genuen. Orain,

ordea, zenbat eta aurrerago joan, partidak irabaztea lortu ez dugun arren hobeto ari gara, lehiari sartuta. Partida bat irabazitakoan buruari buelta gehiago eman go dizkiogu martxa hobea hartzeko.

Jendea joaten al da partidak ikustera?

Bai, etortzen da eta guk jendea kiroldegira gonbidatu nahi genuke, normalean larunbatean 16:00etan jokatu dugu. Kartelak jarri ez arren, etxeko lehen partidetan jendea bazegoen eta alde ederra dago harmailetara begiratu eta jendea dagoela ikustea!

“Aurre denboraldian lagun arteko partida bat jokatu eta itxura eskasa eman genuen. Orain partidak irabazi ez arren hobeto ari gara”

“Ondo jokatu ikastea eta ondo pasatzea da gure helburua. Lehen urtea izanik ezin dugu pentsatu aurreko postuetan bukatuko dugunik”

Areto futbolak ba al du pisurik Orion?

Fama arraunak dauka, futboleko jende asko ibiltzen da eta saskibaloia ere ari da indarra hartzen. Gure taldea epe luzera begira sortu dugu eta jendea animatu nahi dugu guregana etortzera.

Orain dela 3-4 urte areto futboleko taldea maila altura iritsi zen eta gure asmoa berehala emaitza onak lortzea ez bada ere, nahi genuke herriko jendeak, baita umeek ere, ikustea areto futbola hor dagoela. Horretarako txapelketa bat antolatu nahi dugu.

Zein da denboraldirako zuen helburua?

Ondo jokatu ikastea eta ondo pasatzea. Lehen urtea izanik ezin dugu pentsatu aurreko postuetan bukatuko dugunik. Partidaz partida joango gara ahal duguna egiten eta egindako akatsetatik ikasten. Orain beheko zuloan sartuta gaude, baina partida bat irabazi orduko burua lanean hasiko da. Goian egonez gero denok jokatu nahi izaten dugu eta behean egonda uzteko gogoia izaten da. Lehen urtea zaila izaten da eta gaizki bukatu arren, gure intentzioa urte urte jarraitzea da. Diruz laguntzen digutenek hala egiten jarraitzeko, lanean gogoz ari garela ikusi behar dute, eta, oraingoz, emaitzetan ikusi ez arren, seriotasuna badago taldean.



KARKARA



KARKARA

“Denbora gutxian asko aldatu da Aia eta irudi berriak harritu egiten du”

Mikel Iradi

Aiako Udal aparejadorea

Obra handiak ez dira ohikoak izaten Aian, baina azken aldian hilerrri ingurura gerturatzen denak makinak ikusiko ditu lanean. Kirol zirkuitua egiten ari dira han eta, azaroan bukatuko dutenez, haren berri eman digu Udaleko aparejadoreak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Andoaindarra da Mikel Iradi eta hamar urte baino gehiago daramatza Aiako udal-etxean aparejadore lanetan. Hirigintza lanak edo obrak direla-eta bereganajo behar izan duenak ezagutzen badu ere, oraingoan, Aiako lanez dakiena eta duen iritzia emango dizuegu ezagutzera.

Aia bezalako herri txikietan obra asko izaten al da?

Obra partikularren ardura ez du Udalak, baina kontrola egiten du. Besteak, obra publikoak, udalak bultzatutakoak: bide

konponketak, azpiegiturak... gehiago edo gutxiago, beti izaten da zerbait.

Zein izan da zu zauden urteotan herrian egin den obrarik esanguratsuena?

Ez nuke obra jakin bat azpimarratuko, handienak ni etortzerako eginak baitzeuden: frontoia, eskolak... Azken etxebizitza pribatu zein babestuekin denbora gutxian asko aldatu da Aia eta irudi berriak harritu egiten du bat. Dena dela gehienetan jendea ari da bizitzen, beraz, pentsatu nahi dut beharrak sortuta egindako handitze bat izan dela eta herrian ere izango duela bere eragina.

Orain esku artean duzuen obra nagusia kirol zirkuitua da.

Alkatearen ideia izan zen. Sumatu zuen beharra bazela ibilbide bat egiteko eta proposatu zuen zirkuitua hilerrri inguruan egitea, muino horren bueltan. Bidean egon zitezkeen zailtasunak gainbegiratu eta Udal arkitekto laguntzailearekin, Gaizka Perosterenarekin, proiektua landu ondoren gauzatzen ari gara.

“Aia bezalako herri txiki batean oinez zati luze bat egiteko, herri barruan ez dago toki egokirik. Hortaz, ibilbide berriak aukera emango du”

“Edozein ibiltzeko moduko bidea da; bakoitzaren sasoiaren arabera norberak ikusiko du zenbat buelta eman nahi dizkion ibilbideari”

Jendeak, obrarikusi ahala, jakin nahi-ko du hor zer egiten ari zareten, ezta?

Bai, sumatzen dugu jendeak aldeko iritzia daukala eta gogoz dagoela erabiltzen hasteko. Badirudi gero eta gehiago gomendatzen dutela medikuek oinez ibiltzea eta Aia bezalako herri txiki batean oinez zati luze bat egiteko, herri barruan ez dago toki egokirik, Hortaz, ibilbide berriak aukera emango du. Bestela errepidetik ibili beharra zegoen, horrek duen arriskuarekin..

Zein ezaugarri izango ditu ibilbideak?

Kilometro eskaseko luzera, zabalera bi metro eta erdi, malda oso txikiak -gehienez %6koak zati luzeetan eta zati txiki-
ren batean, %8koa- eta asfaltozko bidea izango da. Bestalde, farolarik ez dugu jarriko, baina lurrean argitxo batzuk bai, gauez ibilbidea markatzeko. Beraz, edozein ibiltzeko modukoa da; gero bakoitzaren sasoiaren arabera norberak ikusiko du zenbat buelta eman nahi dizkion bideari. Gainera oso ikuspegi ederrak ditu: Orio, Zarautz, Ernio, Andatza mendia, baserri inguruak... Auto eta motoek ezingo dute bertan ibili -sailen mantenua doazenentzat salbu-.

Honen ondoren aurreikusita al dago herrian beste obrarik?

Mantenu lanak, egokitzapen txikiak, baina obra berri esanguratsurik ez. Nire ustez Aiak duen herri tamainarako eta biztanleriarako nahikoa zerbitzu ona du eta ondo hornituta dago. Gainera, orain, ibilbide honek erantzun ona izango du eta mesede egingo dio jende askori. Oso interesgarria iruditzen zait hau pentsatu eta egin izana.



lazko txapeldunak, Irarretak, ez du parte hartuko aurtengo Kintopeko probatan. IBON ERRAZU

Partaide gutxiago izan arren, maila ona izango da Kintopeko demetan

Urriaren 31n hasi eta azaroaren 4ean bukatuko dira 2013ko Kintopeko probak, hiru jardunalditan banatuta. Aurten parte hartuko dutenen artean ez da aiarrrik eta oriotarrrik izango

Urteko zita garrantzitsuenetakoa izaten da idi-proben munduan Aiako Kintopeko demena.

Azken urteetan aiarrak eta oriotarrak izan dira parte hartzaileen artean, baina aurten ez da halakorik izango. Iaz bi idi pare aurkeztu zituen eta bigarren izan zen Oliden. Aiarraren artean berriz Arzadun eta Iruretagoiena lehiatu ziren.

Baina ez dira huts egingo duten bakarrak, horiez gainera, iazko irabazlea, Errenteriako Patxi Irarreta, ez da Aiako probalekuan izango.

Parte hartzaileak iaz baino zortzi gutxiago izango dira eta hamar idi-pare baino ez dira izango deman. Hilaren 31n, ostegunarekin, gaueko 22:00etan hasita Igueldo-Zumarragakoa-, Iñaki Lopetegi-Birlekoa- eta Areta-Eibarkoa- izan-

go dira nor baino nor. Azaroaren 2an, larunbatarekin, Mendiko-Laudiokoa-, Olatzar-Lezokoa- eta Sistiaga-Urdulizkoa- arituko dira idiekin, 22:00etan hasita. Azaroaren 4an izango da azken jardunaldia, astelehenarekin eta idi-pare bat gehiago dela. Hori dela eta 21:00etan hasiko dira lanean Bizkarre-Usubilgoa-, Urrutikoetxea anaiak-Urdulizkoak-, Epiola-Oikiakoa- eta Soarte-Elgoibarkoa-.

Iñaki Oliden itzainak esan digunez, Sistiaga itzaina da faborito garbia: *bipare izango ditu lehian, bata bere izenean eta bestea Urrutikoetxea anaien izenean. Bigarren pare hori azkenaldian sasoiko dago eta irabazle izateko faborito dira. Dena dela Epiola, Soarte eta Bizkarre ere gertu izango ditu* bukatu du Olidenez.

LABUR

Festak

Gaztain-jana azaroaren 10ean
Lardizabal eskolako guraso elkarteak antolatuta, gaztaina-jana izango da datorren azaroaren 10ean, igandearrekin. Arratsaldeko 17:00etan hasiko dute festa Ibai Esoainen ipuin kontaketaekin, Kultur Etxean. Esoainen emanaldiaren atzetik, frontoian egingo da gaztaina erretzea. Guztira 50 kilo gaztaina erreko dituzte, eta, erreko dituztenen artean, Balentin Aldalur eta Juan Iturain izango dira. Urtero egiten duten ekintza da gaztaina-janarena eta aurten ere doan banatuko dituzte. Behin azaroaren 10a pasata, Gabonetako ekintzak antolatzen hasiko dira Lardizabal eskolako guraso elkarteok.

Garraioa

Autobus zerbitzua hobetu nahian
Erabiltzaileek autobus zerbitzuari buruz pentsatzen dutena jakiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Herritarrekin martxan* kanpaina abiatu du. Orion urriaren 16an izan zen bilera, eta, orain Aian antolatu dute beste bilera bat. Azaroaren 5ean izango da, asteartearrekin, Kultur Etxean. Bilera irekia izango da eta autobus zerbitzua hobetzea da kanpainaren helburua.

Jendartea

Odola ematea urriaren 28an
Denok dakigu zeinen beharrezkoa izaten den odol erreserbak izatea gure erietxeetan. Hori dela eta, datorren astelehenen, urriaren 28an, Aian odola emateko aukera izango da Lardizabal eskolako jangelan, arratsaldeko 18:30etik 20:30era. Odol-emaileek bertara azaltzarekin nahikoa dute.

Hego haizea bezalakoak gara

Urriaren amaieran gaude eta sarritan gertatzen den bezala urte sasoi honetan hego haizea dantzan dabil gure inguruan. Hau da gozamenaren zerua urte guztian baino garbiagoa, kolore biziagoak, zuhaitzak pixkanaka berdetik gorrira, marroira edo horira aldatzen naturaren edertasuna areagotuz. Mendizaleak zoratuta hostoek osatzen duten alfonbraren gainean, zuhaitzak biluzik gelditzen diren bitartean beste urtaroretan ia ikusten ez diren txokoak bistaratu; zoratuta Orioko barran edo Getariako bidean doazenak berdea eta urdina uztertzen diren bide horietan gozatuaz; zoratuta denok negua mozten delako egun epel eta argitsu hauei esker.

Baina hego haizearekin gure gorputzare zoratuta dabil sarritan: buruko mina, ezer egin ez eta nekea, gogorik ez ezertarako, hezurretako eta ebakiondoak dauden tokietako mina...

Noiz bota behar du zaparrada eder bat belarra hazteko –aurten ez da asko izan eta nabarmenduko da neguan ganaduari emateko garaian, beste gastu bat!–, perretxikotara joateko, gorputza bere onera etortzeko eta denok normaltasunera itzultzeko? Euria goian-behean hasten denean –nire lagun goizuetarrak esango lukeen bezala–, berriro ere kexatzen hasteko *lorentzori* deika? Ez da erraza gurekin asmatzea!

Hori nahikoa ez balitz, mahai gainean aspaldiko eztabaida, ordu aldaketarena. Estatuan ez goaz inguruko herrialdeekin

tokatzen zaigun ordutegiarekin batera –Ingalaterra, Portugal edo– Eta horren arrazoia? Bada, 1942an Franco diktadoreari bururatu zitzaizolako Alemaniari koipea ematea. Beste nazio batzuk ere berdina egin zuten. II. Mundu Gerra bukatu ahala lehengora itzuli ziren, baina hemen ez. Horrela, 400 urteko historia duen Greenwich-ko meridioak jartzen duen ardatz ordutik kanpo gabiltza oraindik ere. Urtero hitz egiten da ordu aldaketari buruz, zenbat aurrezten ote den aldaketa hori eginez, zer onura edo kalte dituen... Baina gauzak aldatzen ez badira hilabete honetako azken igandean berriro ere ordubete atzeratu beharko ditugu erlojuak. Goizago argitu, baina lehenago ilundu. Eta inor konforme ez honekin ere!



Txokoak eta jendea Urretxutik Loiolara bizikletaz

Urriaren 20an Guraso Elkarteak antolatuta bizikleta irteera egin zuten Urretxutik Azpeitira. Hiru, oinez joateko irteera puntutik, Azkoi-titik, abiatu eta gero denak elkartu ziren Loiolan hamaiketako egi-teko. Eguraldi ederra lagun goiz pasa polita izan zen eta hurrengoan beste ibilaldi bat egiteko gogoz itzuli ziren Aiara.



ORGANO BERRIA

ABESBATZAREN KANTUZ

Hainbat organo izan dira Orioko elizan eraiki zenetik eta aurki inaureratuko dute berria. Ezker horman egon zen lehenengo eta atzekora pasa zuten gero. 1934an organo berria jarri zuten San Nikolas parrokian eta organo egileentzat lan eskasia zegoenez prezio berezian saldu zien oriotarrei, 12.000 pezetan, ordurako diru dezente zen, ordea.

Inaugurazio egunean abesbatzak elizan kantatu zuen eta ondoren ateratako argazkia

da honako hau. Argazkian eserita ageri direnak egun hartako gonbidatu bereziak ziren. Ezkerretik eskumara Santiago Azurza organo jotzailea, Aita Donostia idazle eta musikaria, Migel Mujika erretorea eta Pugnau organo egilea. Makurtuta dauden mutikoak, berriz, abesbatzako tipleak: Patxi Oliden, Daniel Aierbe, Alejandro Barandiaran eta Joakin Lertxundi *Txato*.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: PATXI OLIDEN |

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

ASADOR XIXARIO
Eusko Gudartean Kalea, 2
Tel. 943 830119 - ORIO

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arazantze, 31 20810 ORIO

ANOBA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza
- segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak
- barandak
- kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



“Musikarekin
bizitzen
jarraitzen
dugu denok”

Mikel Markez

Kantautorea



Bere ahots eta doinu leunekin, baina indartsu, etorri zaigu **Mikel Markez** **Indar bat dabil hor** lan berriarekin. Lana 20 urtetik gorako musika ibilbide batean barrena egin duen beste pausu bat da. Musikan, Errenterian hasitako bideak denboran, musikalki zein sorkuntza arloan, Aian haztera eraman du.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: IRATI AGIRREAZALDEGI

Mikel Markezen etxean beti egon izan da gitarra bat. Anaiak, musika eskolara joan ez bazen ere, nerabezaroan, Errenteriko Xenpelar plazan lagunekin elkartu eta Trianaren, Benito Lertxundiren, Brassensen, Beatlesen, Dylanen... kantutak jo eta abesten zituen. Mikel umea zen artean, baina beren bueltan ibiltzen zen eta orduan jaso zuen musikarekiko plazerezko, gozamenezko harremana. Beste anaiak heavy eta punka entzuten zituen - Cicatriz, La Polla Records, Iron Maiden... eta halabeharrez hori ere jaso zuen. Baina gitarra hartu eta instrumentuak berak bideratu zuen gitarra kantutak egiteko erabiltzen duten kantarien estilora.

Oso goiz hasi zinen gitarra hartuta jende aurrean kantari?

1988an lehenengo kantaldiak eman nituen kartelean nire izena agertzen zela. Banuen sorkuntzarako joera eta akorde gutxi batzuekin kantutak egiten hasi nintzen. Gainera, txunditzen ginen *Sidarta*, *Cien años de soledad*, Bequerren *Rimas y leyendas*, *Leturiaren egunkari izkutua*... irakurtzen, bertsoekin, errimekin. 15-16 urterekin, gure plazera zen poemak idaztea, bagenuen interesa eta ikusten genuen baliagarriak zirela gure bizitzarako. Kantuetako batzuk nireak ziren, besteak eskolako lagunena. Maitemintzea, natura, Euskal Herria... guretzat handiak ziren gaiei buruzko gure iritzia eman nahi genuen eta oso mezu xaloak izan arren 15 urteko mutiko batentzat ez zeuden hain gaizki..

Jendeak zure hasierako kantutak gero-koak baino gehiago gogoratzen ditu. Zuretzat hori kezkatzekoa da?

Kantu landuagoak, sakonagoak, harmonikoki hobeak, duoak, melodiak... egiten ari nintzen eta sentitu nuen garai bateko kantu nerabeek itzala sortzen zutela eta ez zutela berriak ikusten uzten. Baina denborarekin ohartu naiz hori aurreiritzi txoro bat dela. Egin nituenean gizarte bat nuen aurrean, heldutasun maila bat, eraginkortasun bat... Orduan lortu nuen nintzenarekin, nuen xalotasunarekin, eragitea eta jendeari barruan geratu zaion kantu bat sortzea.

Orain, lortu ezean esaten da espainolek eta ingelesek zapaltzen gaituztela, gizarteak aldatu dela, jendea auskalo non dagoela... Baina kontua da gero ez dudala orduan lortu nuen arrakastarik lortu.



Beraz, 40 urterekin, eskatzen badizkide 15 urterekin egindako kantuak ez dut kantu horiei eskerrak ematea besterik. Gazte askori Mikel Markez aipatu eta ez dakite nor naizen, baina *Zure begiek* esan eta gogoratzen dute, beraz, ez dut nire kantuen gainetik egon nahi, kantuek egiten dute bere bidea. Gu denbora labur baterako gaude hemen, baina gure kantuak hor geldituko dira.

Guk daukagun erantzukizun bakarra da orduan bezala ahalik eta kanturik onenak egitea; estudiora joan eta modurik onenenean grabatu, bukaeraraino soinua zaindu, moldaketak, tinbrea, afiazioa.... Gero baldintza asko daude: sormen gaitasuna, merkatua, diskoe-txea, gizartea zeri begira dagoen... Bali-teke bere garaian ezkutuan gelditu zen kantu bati orain bertsio bat egitea eta asko entzutea. Inoiz ez da jakiten. Esan daiteke norberak bizitza eman diola kantu horri eta gero bere kabuz auskalo ze bide egiteko gai den.

Kantautore gisa zein izan dira zure erreferenteak?

Iturri askotatik edan dut, baina batik bat kantu lasaiak jotzen zituen anaiaren eragina nuen. Hark entzuten zituen Silvio Rodriguez, Triana, Beatles, kantu frantsesak... nahiko irekiak ziren. Nik anaiari galdetzen nion akordeak nola ziren, gero belarriz besteen kantuak ateratzen hasi nintzen plazerez gitarra jotzen solfeoaren eta horrelakoen arrastorik gabe. Gainera, begiratuz gero hatsa utzi duten musikariaren edo kantariaren perfila, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Xabier Lete, Niko Etxart, Anje Duhalde... solfeoaz askorik ez zekitelako esango nuke. Kantuarekiko maitasuna modu autodidaktan azaltzen zuten, akordeak ikasiz, imitatuz... Beraz, esan daiteke gu garela batik bat Ez Dok Amairu, kantagintza latinamerikarra eta frantsesaren semeak kontserbatorioetakoak baino.

Eta zu sentitu al zara erreferente?

Jendearen webgune edo facebooketan ikusten ditugu gure aipamenak eta jendeak idatzi izan dit e-mailera akordeak



“Ez dut nire kantuen gainetik egon nahi, kantuek egiten dute bere bidea. Gu denbora labur baterako gaude hemen, baina gure kantuak hor geldituko dira.”

“Begiratuz gero hatsa utzi duten musikariaren edo kantariaren perfila, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Xabier Lete, Niko Etxart, Anje Duhalde... solfeoaz askorik ez zekitelako esango nuke.”

“Denbora luzean jendaurrean aritzea entzuleentzat ere nekagarria da. Beraz, berria den zerbait dugunean atera behar gara, bestela xarma galtzeko arriskua dago”

“Beste belaunaldi batzuetan bermatuagoa egon da euskal kantagintzaren ezagutza, baina orain 18 urtetik beherakoen artean ezagutza maila eskasa da. 13 urteko batek Mikel Laboa ez luke ezagutuko familia kantuzale batetik ez badator eta hori kezkarria da.”

“Lehen milaka ale saldu eta jendeak entzuten zuen, orain kantu bat sortu, Youtuben jarri eta bisita mordoaz izatea da eraginkorragoa. Ni gehiago kezkatzen nau euskal sortzaileen kantuak jendearengana ez ailegatzeara”



eskatuz eta nire kantuei buruzko gauzak esanez. Nire kantuen bertsioak egiten ere ikusi izan ditut. Horrek esan nahi du arrastoa utzi dudala neurri batean.

Bakarlarri, bai, baina bidelagun asko izan dituzu. Horieta bat Pako Aristi. Nola sortu zen bion arteko elkarlana?

Lehen maketa grabatu nuenean ezagutu nuen Pako Aristi. *Diario Vascon* idazten zuen eta elkarrizketa egin zidan. Bibrizio onak sortu ziren gure artean, bere poemak musikatzen hasi nintzen eta lehen emanaldia prestatu genuen: *Tribunen hitz galduak*. Gerora beste hainbat kontu egin ditugu elkarlanean *Abiadura Handiko urte baten kronika* eta *Tabuak saltsa berdean* ikuskizunak, esaterako.

Gero etorri zen Benito Lertxundiaren liburua. Bakoitzak bere aldetik elkartzen ginen Benitorekin. Gero noiz edo noiz hiruok batu, tertuliak luzatu eta beti izaten zen aitzakiaren bat berriz elkartzeko. Orduan sortu zen ideia elkarrizketak grabatu eta liburu batean Benitoren mundu ikuskera plazaratzeko Pakoren eta nire ikuspuntutik.

Zure ibilbidean etena ere egin zenuen.

Urte askoan gurpil ero batean sartuta egon nintzen, denari baietz esaten. Horri norberak hartu behar dio neurria eta ezetz esaten jakin ezean baliteke aste berean kantaldi bat egitea gurdi baten gainean Amaiurren, Donostiako Belodromoan ekintza sozial baten 10.000 pertsonaren aurrean edo bertsolari batzuei laguntzen. Urte asko horrela pasatuz gero ikuspegia galtzen da eta garai hartan etena egiteko beharra sentitu nuen. Urte batzuk ia agerpen publikorik egin gabe pasatu nituen. Herri irratian saio bat egiten bai, baina kantaldiak ez. Denbora luzean jendaurrean aritzea entzuleentzat ere nekagarria da. Beraz, berria den zerbait dugunean atera behar gara, bestela xarma galtzeko arriskua dago.

Bueltatu nintzenean, nitaz ahaztuak egoteko arriskua zegoen arren, berriz oso babestuta sentitu nintzen. Gainera, urte horiek, oso onak izan ziren arnasa hartzeko eta ideia berriekin itzultzeko.



Jendeak kantu leun eta goxoeekin lotzen bazaitu ere kantu batzuk barruan badute beste funts bat, ezta?

Pertsonak ez gara alde bakarrekoak. Ni bezala 20 urte pasa eta, pertsona gisa aldatzen joan ahala, ateratzen doaz alde gehiago. Nik egin ditut kantu erromantikoak, baina baita erotikoak ere. Gizartearekin lotutako gauzak ere egin ditut kantu protestara iritsi gabe.

Kantautore gisa ezaguna izan arren, beste musika esparru batzuetan ere utzi duzu arrastoa, ezta?

Kantagintzaren eta musikaren esparru zabaleko profesionala naiz. Kantaldiez gain, kantarien, musikarien eta emanaldien kudeaketan aritu naiz; Trikitixa elkartean diskoen ekoizpenean, liburu koordinazioan, jaialdien antolaketan... Herri irratian eta Euskadi irratian ere jardun naiz eta horrek eman dit aukerak lan berriei buruz informatua egoteko, kantari askorekin harremana izateko eta nire kantagintza, sormena eta kolaborazioak aberasteko. Gainera ongi etortzen da beste kontu batzuetan aritzea kantagintzaren jorjala osatzeko.

Bestalde, Aian zortzi gaztetxori gitarrak eskolak ematen dizkiet. Hirugarren urtean daudenak gai dira kantatzeko gitarrak lagunduta eta oso atsegina da ikustea gai direla beren kabuz hegan egiteko. Beraiek ziren gitarra jotzen ikasi nahi zutenak eta, hain zuzen ere, gauza horiek ez dira bultzatuta egin behar, norberari atera behar zaio gogoia. Artea eta sorkuntza garrantzitsuak dira behartuta egiteko.

Kultura gainbehera doala esaten du askok eta euskal kultura zein musika are gehiago. Ze iritzi duzu horri buruz?

Nik ez dut diagnosi hori egiten. Gizakiak egiten duen edozer gauza da kultura. Beraz, kultura gainbehera doala esateak ez du zentzurik, kultura beti dago hor. Musikaren ikuspegitik, kontua da, orain ezberdin entzuten dela, ez gutxiago, beste leku bat du gure bizitzan. Lehen trikitilari bat herrira etortzen zenean sekulakoa zen. Musika gogoia zegoen, musikari

INDAR BAT DABIL HOR, DISKO BERRIA

Hamargarrena da Mikel Markez bakarlariak kaleratu duen lana. Diskorako Xabier Amuriza bertsolariak egindako kantu batetik -12 dira guztira- hartua da izenburua: *Indar bat dabil hor. Azken urteotan egindakoaren isla dela dio Markezek.*

Denetarik dago disko berrian. Bertsolarien sortak - Uxue Alberdiren eta Xabier Amurizarena. Beste kantu asko bere testuekin eginak eta beste bat Harkaitz Canoren poema batekin bere garaian Lubaki bandak egindakoaren bertsoa, Itziar Iruretagoienaren musika duena.

Musikarietan garrantzi handiena duena Arkaitz Miner da Mikel Markez hitzetan. Gitarra akustikoa, mandolina eta biolina jotzen ditu. Bestalde, Amaiur Cajaraville du lagun kontrabaxuan eta Satxa Soriazu piano eta teklatuan.

Kolaborazioak ere mordoxka izan dira: kantatzen Xabier Amuriza, Aire ahizpak, Andrea Bidart -Euskaraz kantatzen duen Kaliforniarra- eta Gotzon Barandiaran. Alaitz Telletxeak abesteaz gain soinu txikia jotzen du eta Josu Zabalak eskusoinua. Benito Lertxundik, berriz, Benito Lertxundik, berriz, hitz batzuk errezitatzeko *Gauza xumeetan* kantuan.

Musikari eta kantariak ondoan izan arren, lehen lerroan Markez bera jarri da gitarrarekin. *Ez da musikari pila batekin eta sekulako konponketekin egindako diskoa. Beste disko batzuetan agian gehixeago ezkutatu gara musikari babesean, baina oraingoan pauso bat aurrera eman dut, dio.*

Erritmo aldetik disko alaia da, momentu malenkoniatsuak izan arren. *Mezu baikorrak zabaldu nahi nituen, garaia horretarako daudela uste dut, azken aldian ezkortasunerako joera dugu niri ez zaidana batere gustatzen eta argi izpi bat ekarri nahi nuen.*

Aurki hasiko da kantaldiekin, baina aurkezpen kontzertu *elegantea* egingo du abenduaren 1ean Donostiako Antzoki Zaharrean. Diskoan lagun izan dituen kolaboratzaileak egongo dira berarekin taula gainean.



gutxi zeudenez nobedadea zen. Orain musikak beste leku bat du eguneroko bizitzan. Ez du jendea hainbeste harritzen, baina gizartean denok jarraitzen dugu musikarekin bizitzen eta denok behar dugu musika bizitzeko.

Eñaut Elorrietarekin hitzaldi musikatuak egiten ari zara euskal musikari buruzko ezagutzak zabaldu asmoz. Zein da zuen asmoa?

Kezka gaztetxoan mailakoa da eta helburu nagusia transmisioa. Beste belaraldi batzuetan bermatuagoa egon da euskal kantagintzaren ezagutza, baina orain 18 urtetik beherakoan artean ezagutza maila eskasa da. 13 urteko batek Mikel Laboa ez luke ezagutuko familia kantuzale batetik ez badator eta hori kezagarria da. Eskolaren, curriculumaren, hezkuntza sistemaren bidez beste maila batzuetan bermatzen da ezagutza: literaturan, bertsolaritza... Baina kantagintzan hutsunea dago. Momentuko taldeei buruz zerbait badakite, baina tradizioari buruz ez. Beraz hitzaldi-kantaldiak egiten ditugu batik batik hezkuntza giroarako. Hainbat tokitan emanaldi irekiak egin eta kantuak ezagutzen dituen jendea etorri da, bere bizitza pasatzen ikusi eta entzun duena.

Musika entzuteko era teknologia berriekin aldatuz doa. Zein eragin du musikariongan?

Goiz da horri buruzko analisi bat egiteko. Badirudi diskoen industriak izugarriko gainbehera duela, baina negar egiten ez dugu ezer lortzen. Batzuk formula berrien aurka daude, baina uste dut hau atzera bueltarik ez duen prozesua dela eta ikasi beharko dugu itsaso berri honetan igeri egiten. Lehen milaka ale saldu eta jendeak entzuten zuen, orain kantu bat sortu, YouTube jarri eta bisita mordoa izatea da eraginkoragoa. Ni gehiago kezkatzen nau euskal sortzaileon kantuak jendearengana ez ailegatzea; iristen diren bitartean euskariak ez nau hainbeste kezkatzen. Hala ere, jarraitzen dut diskoak egiten; formula baliagarria eta duina iruditzen zait.

Legeak eta gizalegea

Konstituzio Espainolean idatzitako testuak, askotan dira ulertezinak bezain derrigorrezkoak. Tori galdera zuek erantzun baiezkoak ezezkoak: idatzitako lege guztiak ote dira legezkoak?

Ni bizi naiz baserrian itxasuan baxterrian. Ordeñadorarik gabe ordenadore aurrian. Lurraren legeari eskerrak dauzkagu bixta ederrak. Minik ez daukat gerrian, hipoteka bizkarrian.

Tabakoaren legea errejeta erreza zen. Erretzaile hiltzaileak hasi kalera bialtzen. Lehen deitzen genion *Lucky Estrik*, eta orain *Lucky Estrit*. Gu zigarroak itzaltzen, eta mundua kiskaltzen.

Jubilazio legeak haserre eta letxian. Aiton amonak lanean eta gazteak etxian. Zenbat hirurogeitazazpiko ingeniario eta mediko. Zaharrak lana ezin utzian, gazteak ezin hasian

Terrorismoaren legea, txosten orri auto pila. Zer nahi zenuke frantsesa edo espainola tortilla? Hezkuntzan ideiak sartu ahala, oiloei jana bezala. Demokrazia ixila, urrezko arraultzen bila.

Berdinatasunaren legea desberdina ere bada. Desberdinak baina hara, berdinak ere bagara. Eraiki ditzagun zubiak, zuk nik nik eta zuk biak. Galtzetatik gonara, pertsonatik pertsonara.

Agur doktrina parota, Estrasburgotik Europa. Agur doktrina Parota, arima beltzen tarota.



Agur minaren errota, hauspotu duen erronka. Estrasburgotik notizia, lege baten minbizia. Zenbat ingeniari juridiko, zenbat aberia politiko.

Sortu zutenen porrota, baina ez zaie inporta Nola olatuen kontra, egunero borroka, Ikusi nahi ez duen arroka, mugitu nahi ez duen arroka.

Legea inoiz ez da legea ezin baldinbada hautsi Legegileak ezin badio bere legeari eutsi Ta bukatzeko beste galdera airean nahi degu utzi: ez ote dago lege gehiegi eta gizalege gutxi?

Zaragueta
Herri Eskola *Oriko*

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

estrategia
ANTILLA
justoiz

Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

obrak proiektuak errefarmak errehabilitazioak txostenak lizentziak

XS arkitektura

borja agirresarobe lopetegi 635 73 17 22

Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Kinkladenda- Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARJEN TXARTELAREKIN

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogiarteko **mundialak**

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tl/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

LOMCE legea: Aspaldiko kiratsa



ert ministroak aurrera ateha nahi duen hezkuntzari buruzko lege berria, azken urte hauetan indarrean egon den LOGSE-

ren -1990- aurka doa erabat. Zentzu honetan, PP alderdia ia bakarrik gelditu da lege berri horren defentsan. Gainontzeko alderdi gehienek, eta hezkuntza eragile nagusiek, LOMCE-ren ustelkeriak azaleratu dituzte.

Besteak beste, honako alderdi hauek aipatu izan dira: aukeren berdintasunari kontra egiten diola, hezkuntza kalitatearen atzerapausoa dela eta eskumen autonomikoak urratzen dituela. Ildo honetatik, adibidez, Erkidegoko Estatutuaren arabera, euskara, gaztelania bezain ofiziala da, baina legearen arabera, gaztelania da hizkuntza ofiziala eta euskara koofiziala. Hau da, menpekotasuna adierazten da.

Era berean, Francoren garaian gertatzen zen moduan, hau da, 1970eko hezkuntza legean, hamalau urterekin -eta ez hamaseiekin orain gertatzen den moduan- ikasleen arteko banaketa egingo da: batxilergo edo lanbide heziketara joango direnak. Jakina denez, banaketa honek familiaren klase sozialarekin izugarritzko lotura du.

Lege sexista dela ere esan ohi da sexuaren arabera banatutako ikastetxeak baimentzen baititu. Horretarako, 1960ko UNESCOren deklarazio batean oinarritzen da, baina geroztik NBEk -ONUK- onartutako hitzarmenak eta Auzitegi Konstituzionalaren epaiak ahazten ditu.

Aurreko guztia nahikoa bada ere lege hori

Erkidegoak nahi duen curriculuma eraikiko du, ikastetxe bakoitzak berera egokituko du, baina Madriletik dena kontrolatuko dute kanpo azterketa horien bitartez

atzera botatzeko, ikastetxeetan eguneroko bizitzan aldaketak ekar ditzakeen beste alderdi bat aipatu nahi nuke: irakaskuntzan zehar Madriletik etorrira -ekarrira- ikasleek pasa beharko dituzten azterketak -kanpo azterketak, alegia-. Lehen hezkuntzan bat, DBHren bukaeran beste bat eta Batxilergoaren amaieran bestea -orain arteko Unibertsitate Sartzeko Proba edo Selektibitatea desagertuz-. Lehenengoak izaera orientatzailea izango du, baina beste biak antzinako errebaliden izaera izango dute. Hau da, ikasleak ez baditu gaintzen, ezin izango du hurrengo etapara pasa.

Kanpo azterketa hauen bitartez, hezkuntza sistemaren eraginkortasuna baloratzeaz gain, *lehiakortasuna eta ahaleginaren kultura sustatzea* lortu nahi da lege honen bitartez. Kaka zaharra!

Errebalida hauen bitartez, ikasleak hobeto prestatuak egongo dira ditzosozko PISAko probak gaintzeko. Baina era berean gainontzeko ikasgaiei denbora kenduko zaie. Eta hauek ezinbestekoak dira herritartasun demokratiko, justu eta solidarioa hezteko.

Bestalde, lege honek irakasleengan mesfidantza ere adierazten du, horregatik kanpo ebaluazio eta errebalidetan jarritako amorrua. Benetako balio duen ebaluazioa azterketa hauek ekarriko dute eta ez orain arte bezala, gelako irakasleek.

Erkidegoak nahi duen curriculuma eraikiko du, ikastetxe bakoitzak berera egokituko du, baina Madriletik dena kontrolatuko dute kanpo azterketa horien bitartez. Nahitaez horiek egin eta gaintu behar direnez, azterketa horietan eskatuko diren konpetentziak eta edukiak landu beharko dituzte ikastetxeetan.

Ez badugu zirrikiturik topatzen, etorkizun kaskarra antzematen da datozen urte hauetan. Dena dela, ez galdu konfiantza politikotengan. Legearen aurka azaldu diren alderdiek agindu dutenaren arabera, hurrengo legealdian, PPK ez badu berriz ere irabazten, LOMCE legea bertan behera utziko dute eta ahalik eta adostasun handiena lukeen lege berria proposatuko omen dute. Betiko leloa.

Nire honetan
Elizabete Manterola

Bistatik kenduta

Asteburuan kontatu dituzte: orain gutxi atez atekoak martxan jarri den herri batean pertsona bat ikusi omen dute etxeko leihoetik putzutara zabor-poltsa botatzen. Urak eramango du bai eta kitto arazoa. Lasai asko geratuko zen gainera! Baina, pentsatzen jarrita, zabor-biltzaileak herritik pasatzen direnean ere antzera egiten dugu guk ere: etxean sortutako zaborra kamioian jaso eta bistatik kentzen digute. Kitto arazoa, ur-azpira edo zabortegira, hantxe doa behar ez dugun guztia. Izan ere, mutur aurrean zaborrik ikusten ez badugu, arazorik ez dagoela ematen du. Ez litzaziguke ez gaizki etorriko zabortegiren batera bisita egitea, gizartearen miseriak bertan bilduta ikusteko.

Bilketa sistema gora eta bilketa sistema behera, itsu-itsuan batzuk eta besteak, eta bitartean birziklapenak derri gorrezkoa behar duela ikusi gabe dabil zenbait, lasai ederrean. Eztabaidarekin asperasper eginda banago ere, onurak ekarri dituela iruditzen zait: birziklapen kopurua gorantz doa pixkanaka. Hori bai, ezin konformatu maila horretako eztabaida politiko eta sozialarekin soilik. Noiz hasiko gara gehiegi sortzen dugula onartzen? Noiz derrigortuko gaituzte zabor gutxiago sortzera? Erosegiz bizi gara zaborra sortu orduko bistatik kenduta.





INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

PIZZERIA
KALETA



ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

libe
dietetika

elikadura aholkularitza

merkeago
bikoteka datozenezat

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sareta Arrantzale kaleak]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

Maidar Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361
www.podologia-oinarri.com

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

ERRETEGIA
PATXI OLIDEN
ERRETEGIA

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
bekorra, txarizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Gabon
TABERNA
plater kokaak · pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Eusko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

Portu
ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa 46
943 89 44 04
20809 AIA-ORIO

*Erretok laserko olibak
pintxo orotik erretok*

TANATORIO ZARAUZ



EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldi oroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroikiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 49 37 / Faxa: 943 89 49 41
e-mail: hazrespil@hazrespil.net

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio (Gipuzkoa)

24 ORDUKO ZERBITZUA

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

www.IGLESIASARRAILAGILEAK.COM

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiaszarraiz@iglesias.com.es
20810 ORIO

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2, 2. ezkerre ORIO

Tf: 618 581 398 - 659 218 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Gaia emanda

Alkohola eta gaztetxoak festa handietan

Gero eta adin txikiko gaztetxo gehiago ikusten dira jendetza handia ibiltzen den jaietan alkohol botilak hartuta eta mozkortuta. Zer egin daiteke horri aurre egiteko?

Litroetatik metroetara

Aurtengoan ere joan da Kilometroak eguna, *Kilometroak* izateari uzteko lehen pausoa eginda, pauso garrantzitsua eta jarraitzea eskatzen duena. Asko izango zarete festa honetara joateari utzi diozuenak ikusten zen giroa ikusteaz nazkatuta zeundetelako, eta honen aurrean aurten antolatzailea zen ikastolak, lehen aldiz gazteei aukera desberdin bat eman nahi izan die hainbat ekintza antolatuz. Kilometroak egunean Tolosan bertan izan nintzen konpainia onean eta batek esan zidan bezala: *zerbaiten falta sumatzen da... ez da beste urteetako kaosik ikusten*, eta eztabaida aurrera zihoan bezala, kaosa gaztetxoaren egoera etilikoak sortutako kaosaren falta zen sumatzen zena familia asko eta giro polita egonik. Honek ez du esan nahi gazteak edanean ez zebiltzanik, baina hartutako erabakiak festaren alde hartutakoak direla ikusi da, ondoren etorri zitezkeen kritikak entzuteko asmoz. Kritikak egon direlako. Nerabeak sarreretan *litroak* uztera gonbidatu zituzten barrenera sartuz gero barruko segurtasunekoekin topo egingo zutela adieraziz, eta gurasoak entzun nituen erabaki horren aurrean kexu: *normala da Kilometroak-era litro-ekin etortzea, danok egin dugu*, baina gero ez kezatu beste urteetan egoten zen mozkor festarekin.

Baina prebentzioa denon eskuetan dagoen zerbait da. Isunak jartzea, edariak sartzen ez uztea... lehen pausoa izan daiteke, hausnarketa bat sortzea helburu duena – lortu bada primeran, ez bada

lortu eredua jarraituz lortuko dugu-. Askotan poltsikoa ukitu arte ez baikara begiak irekitzeko gai. Eta noski, poltsikoa ukitzean orduan hasten dira dardarak eta ardurak. Ikusi besterik ez dago ze *frenazo* ematen diren radarra antzematzen dugunean. Pena da puntu horretaraino iritsi beharra jendeak egoeren aurrean neurriak har ditzan, baina beno... horixe da dagoena.

Nerabe eta gaztetxoaren kontsumoen inguruko datuak mila dira, hastapeneko adina behera, gero eta gehiago mozkortzen dira... datuak mila diren bezala, errealitateak ere halaxe dira. Estatistiken munduak errealitate bat azaltzen digu, ondoren irakurleak nahi bezala ulertu eta interpretatu dezakeena. Baina garbi utzi nahi dudana gauza bat honakoa da: astebururo mozkortzen den baten aurrean inoiz alkohol tantarik probatu ez duena dago, eta pena bada ere, bistara agertzen diren datuak kontsumitzaileenak izan ohi dira, horri emanaz indarra edo garrantzia, kontsumitzen ez

Nerabezaroa aldaketa garaia da, gazteak heldu izan nahi du eta helduak gazte izaten jarraitu. Eta gazteak zer egiten du? Parranda. Parranda egitean gara aske, esan zidan lehengoan batek

duena errealitateetik ezabatuz. Uste dugunak baino gehiago baitira ezabatuak geratzen diren horiek. Eta horiek dira babestu behar ditugunak.

Baina beti esan izan da, gaztetan egin beharrekoak gaztetan egin behar direla, eta ados nago, baina ez dakit ohartu zaretan nerabezaroa inoiz baino lehenago hasten dela eta inoiz baino beranduago egiten gara heldu. Aldaketa garaia da, gazteak heldu izan nahi du eta helduak gazte izaten jarraitu. Eta gazteak zer egiten du? Parranda. *Parranda egitean gara aske*, esan zidan lehengoan batek. Eztabaida sortu genuen eta ondorio batetara iritsi ginen: parrandan gabiltzala nahi duguna egiten dugula – bestea errespetatuz beti ere – eta poltsikoan dugun diru kopuruaren menpe bakarrik gaudela. Ados izan edo ez, buruari pare bat buelta ematera bultzatu ninduen argumentua izan zen.

Hasierakoari heldu nahiko nioke amaitzeko. Pauso tinkoa eman da Tolosan *Kilometroak*, berriz Kilometroak izan daitezen berregituratzeko Tolosan, badakit gainera hurrengo urtean Orioko Ikastolatik, 2014ko Kilometroak-eko antolatzailea izanik, prebentzioari indar berezia eman nahi zaiola, horregatik eta ideia edo proposamenen bat duen oro Ikastolara gerturatzeraz gomendatuko nuke, pentsatzen duten buru askoren artean, gutxi batzuen artean baino ideia interesgarriagoak sortzeko aukera gehiago daudela jakina baita.

Lukene Lizaso

Hezitzailea

Tel: 943 835845

ROSANA ARRUTI ARGAZKILARIA

Aita Lertxundi, 26 Orio



SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa, Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32





Uhats taldeko kideak otsailean Kultur Etxean egin zuten entsegu irekian. KARKARA

Uhats: herriko ahots berrien uhina

Kritika Uhats

Abeslariak, Eneritz Aulestia, Intza Unanue, Iñaki Lizarralde eta Mirene Elizondo. **Hitzak,** Olatz Zugasti eta Goiuri Unanue.

Uhats taldeko 4 ahotsak, izen bereko lehen maketan, zortzi abesti dakarzugite; zazpi abesti propio eta abesti ezagun baten euskarazko moldaketarekin osatu dute diskoa.

Hitzak Olatz Zugastirenak eta Goiuri Unanuerenak dira gehienbat, nahiz eta Iñaki Lizarralde abesti baten sorreran Zugastirekin batera jardunduen.

Musika, erabat, Zugastik berak sortua da, baina Julen Alonso gaztearen lana ere nabarmentzekoa da, berak egin baita bi abestiren soinua.

Piano, perkusio, gitarra eta eskusoinuz lagundu dute eta lan horretan Iker Urdangarin eta Paul Beitia gehitu behar ditugu.

Diskoaren azaleko argazkiak egiteaz Iker Gozategi arduratu da.

Erritmo ezberdinak uztartzen dituen musika lasaia aurkituko dugu, teknika eta kalitate handiko ahotsak abestua. Eneritzek liriko eta garbi, goikoak eta baxuak primeran kontrolatuz; goxo eta ezti Intzak, sentimendua

transmitituz, -2010eko Gipuzkoako Kantu Txapelketa gaur arte emandako aldaketa izugarria iruditu zaidala esan behar dut-; Mirenek sakon eta indartsu, energia handiarekin; eta Iñakik, taldeko gizona ahots bakar-rak, ahots baxua, baina leuna du, ibilbide luzekoa.

Etorkizun polita dute aurretik, 20 urtetik beherako gazte koadrilabat batu eta horrelako sorkuntza egitea -azken finean hori baita egiten dutena, sortzea- sekulakoa delako. Ea zortea izaten duten, gaitasuna soberan daukate-eta.

ELI HUEGUN

Ikasleak idazle
Antton Iturain

Arraunlari artean futbola gustuko

Niri Orion bizi naiz, nire herria arraunlaria izanik niri gehien gustatzen zaidan kirola futbola da. Arraunean jardutea ez dut oso gustuko, hala ere, askotan joaten naiz estropadak ikustera, Orioko animatze-za, noski.

Baina niri txikitatik futbola gustatu izan zait. Txikitari egunero joaten nintzen futboleko aritzera, aitarekin, noski. Nire arrebak plaierotan eta Orioko



Futbol Taldean ibiltzen zen, niri sekulako inbidia ematen zidan. Orioko *Kontxako bandera* irabazten zenean poztu egiten nintzen, asko gainera, baina gol bat sartzerakoan sentitzen nuen poza... hori bai poza. Nire *San Miguel liga* futbol txapelketa irabaztea litzateke, eta nire *Kontxa...* nire ametsak betetzea. Arraunlariak txikitatik *Kontxa* irabaztea amets duten bezala, nirea, futbolari izatea da.

Gure arraunlariak, bigarren mailan ibili ondoren, berriro ere punta-puntan dabil-tza eta lan asko egin behar izan dute. Badakit batzuetan atzera joan behar dela aurreragiteko, beraz, aurten Orioko Futbol Taldearekin liga irabazten ez badugu agian nire ametsetik gertuago egongo naiz.

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 834
E-mail: manterola@manterola.com
20810 ORIO - GIPUZKOA

Esferako balbula
AENOR kalitate iturtagiriduna

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

RAMIRO ARGAZKIAK

» HANDIK ETA HEMENDIK



Euskarazko gizarte erakundeen sareak diskurtso beregain bat, doinu propio bat eta estrategia autonomo bat landu behar du”

Jon Sarasua, *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideak apunteak* liburuaren egilea, Berria-, 2013ko urriaren 12a.

“Bertsolarien meritua momentuan gai jartzaileak ematen duen gaia fin jorratu eta entzulearengana iristean dago. Zerotik ez da ezer hasten.”

Xabier Sukia, Irrati esataria eta bertsolaria, Arkupe-Urola Kostako Hitza-, 2013ko urriaren 10a.

» OSPAKIZUNA



Aldapan gora eta behera

Orion bada Aldapa elkarte eta baita beste hainbat herritan ere, Iruñean kasu. Orioko eta Iruñekoaren arteko senidetzea egin zuten 1997an eta ordutik urtero elkartzen dira. Iaz Iruñera joan ziren oriotarrak eta aurten, pasa den larunbatean egin zuten hizordua Orion. Aldapa elkartearen gosalduek ondoren txaranga lagun ibili ziren kalean eta ondoren hondartzan bazkaldu zuten umore onean.

» ZORIONAK!

Emakume kirolariei

K irol askotako lehiaketak martxan jarri dira eta beste behin Orion emakume kirolari asko dau dela argi geratu da.

Futboleko talde bat osatzeko kinka larrian ibili ostean, bi talde osatu dituzte. Saskibaloian iazko kopuruari eustea lortu dute eta sofboleko ere ari dira. Arraun elkartean ere geroz eta gehiago dira.

Baina kirol federatuaz gainera emakume asko ikusten da gurean egunero egunero. Korrikalariak batzuk, txirrindulariak besteak... Eta padeleko txapelketara ere mordo bat animatu da.

Horregatik guztiagatik, gure zorionik beroenak eman nahi dizkiegu kirola egiten duten emakumeei.

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutzizak

Eusko Gudari, 5 Tel: 943 24 67 74 - Orio

izarra

GIZON MODA

Balea, 1 tel. 943 13 39 30 ORIO
www.izarra@hotmail.com

tel/fax: 943 89 00 69

Bizkaia kalea, 4. 20 800 ZARAUTZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA BAINU ERAKUSKETA

URAITZ

kurinologia

gaitz arazagarriak

Euzkadi, 3 Tfn: 943 83 18 97

ITZALA

kartela jokatzeke

aproposki

tel. 943 83 12 59

KAIUA

Plater kombinatuak,
bokatak, hanburgesak...

ANIBARKO PORTUA 35, BEHEA TE: 943 840 060

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta errenintak

fer.uranga@euskalnet.net

Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

SU KIA

TABERNA JATETXEA

On agin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREKAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENJUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF: 943 862 129
ABARQUEN 36, 1. BARRUA

Orioko txistulari-gudaria

Oroimenaren kutxa

Alejandro Lizaso Eizmendi Orion jaio zen 1909ko azaroaren 9an, eta 1936ko apirilaren 5ean hil, gerrako frentean, beren posizioa defendatzen ari zela, tiro batek buruan jota, etsaiei esku-granadak jaurtitzen ari zela. Gerran *Itxarkundia* gudarien metrailadore-batailoiko kapitaina izan zen. Hil zutenean, gerra-frentean bertan lurperatu zuten, Legutioko lurretan.

Lizaso txistulari handia izan zen. Gerra hasi zenean, Euskal Gobernuak aukera eskaini zion Europan zehar euskal kausaren aldeko propaganda egiteko, batetik bestera txistua joaz ibiltzeko. *Nire lekua mendian -frentean- dago* erantzun zien.

Txistulari solista moduan, 17 urterekin, lehen saria eskuratu zuen, Donostiako *Euzko Gaztediko* ezpata-dantzari taldeko txistularia zela. Errenteriako udal txistulari taldean lehen txistulari plaza eskuratu zuen, lehiaketan. Bere zenbait ikaslerekin banda bat osatuta, Bilboko lehen saria eskuratu zuten, lehian Gasteiz, Tolosa eta Bermeoko bandak zeudela. Garaipenen oihartzunak eraginda, Mexiko hiriko Eusko Etxeak deituta, jira bat egin zuten Mexikon.

Caracaseko Txistularien Elkarteko idazkari Sandalio Tejadak, 1954an, liburu bat



Artikuluko datuak Auñamendi entziklopediatik hartuak dira. OARSO

argitaratu zuen, oriotarraren omenez: *Iconografía del txistu. El Angel Txistulari de Caracas*. Idatzi hartan *Euskadiko urretxindorra* deitzen zion Alejandrori.

Txistulari oriotarra sortzailea zen, zenbait melodiarren asmatzailea. Ezagunena *Eusko Gudariak*-en melodia da, *Asto baten gainean Domingo Kanpaña* kantu herrikoia ren aldaera. Estrofabateko hitzak ere Lizasorenak

dira, EAJko presidente Jose Mari Garatek 1932an sortutako kantuko hitzei erantsita.

Abesti horretan batu ziotuen txistulari-gudariak bizi-tzan egokitu zitzaizkion bigertaera nagusiak: musika eta gerra. Hil zenetik horrenbeste urte pasa eta gero, oroi-garri honek lotu dezala Lizaso bere jaioterriko kale nagusiarekin: *Eusko Gudari*.

[IÑAKI TURAIN]

» JAIOTAKOAK

■ Luken Duran Elizondo, Orion, urriaren 10ean.

» EZKONDUTAKOAK

■ Jesus Inclán Fernandez eta Alicia Arenal Redondo, Orion, urriaren 12an.

» HILDAKOAK

■ Luis Eizagirre, Aian, urriaren 17an. 84 urte.
 ■ Gregoria Eizagirre Azpiroz, Orion, urriaren 14an. 99 urte.
 ■ Antonio Eizmendi Iruretagoiena, Aian, urriaren 10ean. 82 urte.
 ■ Bixente Peña Manterola, Orion, urriaren 9an. 89 urte

.....
 .. Eskela edo ..
 .. urteurreneko ..
 .. gogoangarria ..
 .. KARKARAN jarri nahi ..
 .. baduzu, deitu gure ..
 .. telefonora: ..
 .. **943 83 15 27** ..
 ..



PERTSIANAK
 A K O M A Z
 O Z
 Aluminio, PVC
 Venezianak
 Motorrak...
 Tel. 943 13 29 01 Musikorra 600 70 52 27

MIRANDA
 tarima, ate, leiho, eskaleta...
 behar diren aratz lanak
 egingo ditugu
 Urdaneta bidea, 1 -669 42 32 70- ZARAUTZ

Katu Horia
 ESTROPALARI, 10
 20510 ORIO
 tel. 917 11 66 99
 LARRIARIK
 605 67 64 95

KAXAIO
 PLADURRA ETA IGELTSUA
 Konponketa eta berrikuntza lanak
 pladurra eta igeltsuarekin
 4josemaria@gmail.com
 (656 777 574

“Munduarentzat mehatxu diren bekatuen aurka praktikatzen dugu”

Jose Manuel Males

Eliza ebanjelikoko artzaina

Kristau federako ebanjelioa iturri bakar duten doktrina edo jarrera da ebanjelismoa eta honen jarraitzaile eliza ebanjelikoa. Orion eta inguruan ere baditu jarraitzaileak eta baita lokala ere. Ubegun industria gunean egiten dituzte beren errezoak.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Orioko eliza ebanjelikoko kideak Donostiara joaten ziren lehenengo, duela hiru urte Pelotari kaleko lokal txiki batean elkartzen hasi ziren eta orain kide gehiago izanik Ubegungo industria gunean egiten dituzte hitzorduak asteburuetan. Jose Manuel Males, Orion bizi den kixtuak, teologia ikasketak egin zituen eta eta jarduerak gidatzen ditu artzain gisa.

Zein dira ebanjelismoaren oinarriak?

Jainkoarekiko fedea praktikatzen dugu eta munduarentzat mehatxu diren bekatu guztien aurka praktikatu: delinkuentzia, homosexualitatea... Grazia-rengatik bizi garela sinetsi eta naturaz gaindiko jainko bat gurtzen dugu.

Gizarte guztiak ez du bekatuen inguruko zuen pentsaera onartzen, ezta?

Bibliak Itun Zaharreko lebitarren 18. kapituluak dio Jainkoak gizakia, Israelgo herria, madarikatu zuela gizakiaren desobedientziarengatik. Homosexualitatea, gaiztakeria, delinkuentzia, gizakiak elkarren artean hiltzea... onartu zuten.

Esaterako, askotan pentsa daiteke homosexualitatea berezkoa, naturala, dela, baina bibliak dio Jainkoak bidali ziola gaiztakeria hori gizakiari. Beraz, guk hainbat homosexuali Jesusen hitza predikatu diegu eta izan dira hainbat lagun aldatu direnak. Jainkoaren hitza ebanjelizatzen dugu, homosexualiterik, delinkuentziarik... egon ez dadin.

Ez da guk ikusi nahi ez dugunik arazo-etatik atera daitezen lagundu nahi diegu: drogamenpekotasunetik, adibidez. Psikologikoki, ekonomikoki, modu espiritualean laguntzen diegu. Esaten diegu

Jainkoa maitasuna dela eta denak maitatu behar direla salbuespenik gabe Jainkoak maitatzen gaituen bezala. Ez gaude gaitza egiten dutenen aurka baikik eta Jainkoak dion bezala borroka ez da gizakien artekoa izan behar Satanas eta bekatuaren artekoa baikik. Beraz, guk adulterio, larru-jotze, idolatria, sorginkerien... aurka praktikatzen dugu. Uste dugu badela dena alda dezakeen Jainko ahalguztidun bat.

Ezberdintasunik ba al duzue kristau katolikoekin?

Guk Jainkoaren hitzari jarraitzen diogu, Bibliari, eta gu ez gaude beste inongo erlijioen kontra. Denok dakigu Jainko bakar dagoela, beraz ez dugu Jesus beste jainkorik gurtzen. Ezberdintasun bakarra da guk ez dugula santurik adoratzen ezta Amabirjina ere; errespetatzen dugu baita maite ere Jesusen ama zen heinean, baina bera gizaki gisa hil zen.

“Adulterio, larru-jotze, idolatria, sorginkerien... aurka praktikatzen dugu. Uste dugu badela dena alda dezakeen jainko ahalguztidun bat”

“Guk ez dugu santurik adoratzen ezta amabirjina ere; errespetatzen dugu baita maite ere Jesusen ama zen heinean, baina bera gizaki gisa hil zen”

Zer egiten duzue eliza ebanjelikoan?

Jainkoaren hitza adoratzen dugu, zabaldu, irakatsi... Bibliari buruzko hizketaldi eta eztabaidak izaten ditugu artzain ebanjelikoek gidatuta. Abestu ere egiten dugu eta gitarra zein bestelako musika tresna eskolak eman ere. Hainbat herrialdetako jendea elkartzen gara: Nikaragua, Argentina, Kolonbia, Ekuador, Espainia, Euskal Herria...

Kanpaina egingo duzue zuen erlijioaren berri emanez.

Azaroaren 2an plazan egitea eskatu dugu. Askok pentsa dezake latindarrentzat eta indigenentzat baino ez dela, baina irekia dago Jainkoaren hitza ezagutu nahi duten guztiei, Jainkoak gerturatzeko baitu jendea gugana. Denok anai-arrebak gara, ez dago bereizketarik herriar eta kanpokoen artean. Gure sustriak, kultura eta balioak aintzat hartu eta besteekin elkarbanatzen ditugu.



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ Koltxoi on eta oso gutxi erabilitakoa dut merke-merke saltzeko -250 euro, erositako prezioaren he-renean-. Viscolastikoa eta erdian muelleduna, 1,80x1,90m neurrikoa. Tf.: 634 429 459

■ Autoasalgai. Kia Carens 1.8 monobolumena. Matrikula: 4405BVV. 105.628km. Tintatutako beirak, parrilla eta kutxa. Barrutik erabat txukun. Asegurua 2014ko martxora arte. 2.500 euro. Tf.: 674 076 785.

Auto-partekatzea

■ Goizero Oñatira ikastera joateko autoa partekatze-ko norbaiten bila ari naiz. 08:00etarako Oñatin eta 14:30etik aurrera buelta.

Tf.: 627 630 022 -Mikel Arregi Satrustegi- edo Muxutruk lore denda.

Alokatu

■ Garaje itxia alokagai Orioko Goiko kalean. Tf.: 669 254 741 edo 699 716 253.

Lan eskaerak

■ Emakumea lanerako prest. Asteburuetan, orduka. Edadekoak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tf.: 616 136 439

■ Mutila lanerako prest. Adinekoak zaintzen edo beste lanetan. Arauzko dokumentazioa eguneratuta. Tf.: 644 360 164

■ Adineko gizonak zaintzeko edo beste edozein lanetarako prest. Gizon

gaztea, arduratsua eta zaintza lanetan esperientziaduna. Tf.: 632 569 121

Galdutakoak

■ Urrezko lepokoa galdu dut. PE inizialak ditu grabatuta. Norbaitek aurkituko balu, deitu zenbaki honetara. Tf.: 676 208 466 -Xabi-

Hezkuntza

■ Lizentziatua, Pedagogika gaitasun agiriarekin -CAP- eskola partikularrak emateko prest. Prezio onean. Tf.: 652 551 550

Beste

■ Helduei bizikletan ibiltzen irakasteko prest. Doan. Informazioa: 658 758 458.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
25	08:56 eta 21:26	02:41 eta 15:15	
26	09:50 eta 22:31	03:11 eta 16:14	
27	10:00 eta 22:51	03:35 eta 16:25	
28	11:20 eta ____	04:50 eta 17:38	
29	00:07 eta 12:28	06:02 eta 18:40	
30	01:05 eta 13:22	07:00 eta 19:29	
31	01:51 eta 14:06	07:48 eta 20:12	
01	02:31 eta 14:47	08:30 eta 20:52	
02	03:03 eta 15:26	09:10 eta 21:31	
03	03:46 eta 16:05	09:50 eta 22:10	
04	04:25 eta 16:45	10:31 eta 22:50	
05	05:05 eta 17:28	11:13 eta 23:32	
06	05:47 eta 18:13	11:58 eta ____	
07	06:33 eta 19:02	00:17 eta 12:47	
08	07:25 eta 19:59	01:06 eta 13:41	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

URRIA

■ 25etik 31ra, Lasa.

AZAROA

■ 1ean, Lasa

■ 2an eta 3an, Gallo.

■ 4an, Iriarte.

■ 5ean, Larrañaga.

■ 6an, Zulaika.

■ 7an, Etxeberria.

■ 8an, Gallo.

■ 9 eta 10ean, Azaldegia.

■ 11n, Larrañaga.

■ 12an, Mutiozabal.

■ 13an, Etxeberria.

■ 14an, Gallo.

Gaueko zaintza: Iriarte.

Azaldegia: Urdaneta kalea, 8.

943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.

943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.

943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.

943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.

943 83 09 36 Orrio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17.

943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo

Enea, 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41

943 13 39 94 Zarautz

» AGENDA

Orio**Musika**

■ Urriaren 25ean, Tech house gaua, Jorge Martinez *Martino* eta Imanol Arreseigor *Unfaith*-ekin, 23:30, Kalakari tabernan.

■ Urriaren 31n, Halloween festa: Dj Aros, gauerdian, Koasta tabernan.

■ Azaroaren 1ean, Gau elektronikoa: Anartz Nomaklimato eta Dj Illarra, 23:30ean, Kalakari tabernan.

Bingoa

■ Urriaren 30ean eta azaroaren 6an 16:30etik 18:30era, Jubilatuen Elkarteak antolatuta, Kultur Etxean.

Traste zaharrak

■ Urriaren 30ean, traste zaharren bilketa, ohiko zabor on-

tzien ondoan. Atera aurretik udaletxera deitu behar da zer bota behar duzuen jakinarazteko. Tf.: 943 830 346.

Hitzaldia

■ Azaroaren 7an, XXI. mendeko euskalgintza: paradigma aldaketa euskara biziberritzearen aldeko lanean; marko teoriko berriak gaiari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Julen Arexolaleiba, 19:00etan, Salatxo aretoan.

Aia**Erromeriak**

■ Urriaren 27an, Arkaitz Allur eta Idurre Arriola; azaroaren 1ean Laja II eta Unai Narbaiza, 18:30etik 21:30era, Andatzako Aristerrazuko plazan.

Odolateratzea

■ Urriaren 28an, odolateratzea, Lardizabal eskolako jantzelan, 18:30etik 20:30era.

Urdanetako San Martinak

Azaroak 3, Jubilatuen eguna

■ Meza Nagusia, 11:30ean.

■ Eskuz binakako pilota partidaren finala, 12:00etan.

■ Herri kirolak, Zarauzko harri jasotzaile eskola. Julio Soto eta Jon Maia bertsolariek eta Astiazaran anaiak trikitilariak alaituta, 13:00etan.

■ Ondoren, Auzoko nagusien bazkaria, Urdanetako Indamendi Elkartean, bertsolari eta trikitilariekin.

■ Bazkalostean, bertso eta trikitixa saioa.

■ Kalejira, tabernaz taberna bertsopak entzunez eta dantzari, 18:30ean.

■ Astiazaran anaiak, 22:30ean, Ximorren.

Azaroak 8

■ Mus txapelketa, 22:30ean, Indamendi Elkartean.

■ Ihes naiz taldea, 23:30ean, Ximorren.

■ Ondoren, taberna irekita egongo da parranda gogoan dutenentzat.

Azaroak 9

■ *Gorriti's Show*, Gorriti bere animaliekin, 16:00etan.

■ Ondoren, Txokolate beroa bizkotxoekin ume eta helduentzat.

■ Txahal jana, 21:00etan frontoian. Txartelak salgai Urdanetako Izarra, Begoña eta Ize-ta tabernetan eta Zarautzen, Azken Portuko Otzarreta Harategian. 25 euro.

■ Afalostean, Peñagarikano eta Irazu bertsolarien saioa eta Izer eta Alabier trikitilari-ekin erromeria.

■ 00:00etatik aurrera Ximorrekita.

Teknologia berriak eta esku-lana gorputzaren osasuna hobetzeko

Natalia Wieresen

Sinergia zentroko fisioterapeuta



Badira urte batzuk Sinergia Orion atea ireki zituenetik. Ordutik hona jende asko pasa da beren zentrotik. Baina kirolariek ere lan asko egin dute, Orioko arraun elkarteak, Zarautz Rugby Taldeak, futbolariak... Beren lanaren gakoa azaldu nahi izan digute orain.

Eskaintza zabala duzue Sinergia zentroan. Zein da horretarako gakoa?

Bada, profesional asko gabiltza bertan lanean. Bakoitzak esparru batean baina gehiagotan burutu ditu ikasketak eta horrek ematen dio Sinergiari hainbeste zerbitzu mota eskaintzeko aukera.

Zer motatakoak dira zerbitzu horiek?

Bada, lesio bakoitzak bere tratamendua behar izaten du. Guk lesio asko tratatzen ditugu: esginzeak, tendinitisak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, alterazio posturalak, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak, lesio neurologikoak, haurdunaldirako eta erditze ondorengo errehabilitazioa...

Horiek guztiak behar den bezala zaintzeko, tratamendu desberdinak eskaintzen ditugu. Lesioa gertatu ondoren, baina baita lesioa gertatu aurretik ere. Prebentzio lana oso garrantzitsua da eta. Horretarako, terapia manuala, osteopatia, RPG, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesotaping-a, pilates eta abdominaletako gimnasia hipopresiboa – GAH – erabiltzen ditugu.

Horrek etengabeko berritzea ekarriko dizue ezta?

Bai, hala da. Gure profesionalak etengabeko ikasketen prozesuan murgilduta daude. Ikastaro ugari egin behar izaten ditugu teknika eta teknologia berrietara egokitu ahal izateko.



Teknologia berriak aipatu dituzu. Zein da zuenean erabiltzen duzuen?

Bada *Indiba* –lehen *Tecar*– izeneko teknologia erabiltzen dugu. Energia elektro-birsortzailea da erabiltzen duena. Horrek metabolismoa aktibatu eta gihar eta hezurretako baskulazioa eta barne temperatura areagotzen ditu, hala zelulak berezko orekara eramanez. Horren ondorioz, lehen unetik gaixoaren mina gutxitzen da eta gizakiok berezkoa dugun sendatzeko prozesu naturala azkartzen du nabarmen. Gainera, gaixoaren funtzionaltasuna bere onera itzultzen da, mugimendua errehabilitatuz, giharren tonua bere onera itzuliz eta elastikotasuna areagotuz. Era berean, mina hartutako tokiko handitua jaisten du. Horregatik guztiagatik, errehabilitazio behar den denbora asko gutxitzen da.

Oso tresna berezia da hortaz.

Bai, eliteko kirolariek asko erabiltzen dutena. Chema Martinez korrikalariak eta Rafa Nadal tenis jokalariek, esaterako, terapia manuala eta *Indiba* teknologia uztartuta erabiltzen dute, eraginkortasuna areagotuz. Baina ez dira bakarrik. Espainiako saskibaloia selekzioa, Frantziako atletismo selekzioa... asko dira *Indiba* onurak erabiltzen dituztenak. Baina lunbalgiak jota, tendinitiarekin edo artrosiarekin dauden eta kirolariak ez direnentzat ere primerakoa da. Baita burdinazko inplanteren bat dutentzat ere; oso segurua eta eroso da.

Pilatesa ere oso modan dago, ezta?

Hala da. Ariketa fisikoa bezala erabiltzen dugu batetik, baina modu terapeutikoan ere erabiltzen dugu. Kirurgia egin eta gero edozein artikulazioaren errehabilitazio zinetikorako, adibidez. Kirolariei dagokienez, muskulatura sakona eta egonkortzailea lantzen ditugu, eta errendimenduak gora egiten du pilatesari esker. Gainera Sinergiako profesional guztiok pilateseko formazioa jaso dugu.



IBAI ONDO 1, BEHE-OINA
TF.: 943 130 577

WWW.SINERGIA-WEB.COM
685 718 595

LESIOAK: ESGINZEAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOLOGIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



herriarrek
martxan en marcha



 **Gipuzkoa**
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

NOLAKO AUTOBUS ZERBITZUA NAHI DUZU?

Gipuzkoako Foru Aldundiak zurekin batera hobetu nahi du zerbitzua, eta horretarako 56 herritan bilera irekiak antolatu ditu. Internet bidez ere egin dezakezu zure ekarpena:

www.garraioahobetzen.net.

PARTE HARTU ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.



Gipuzkoa
BERRIA